Bertsoak: Hernia: H-J

Erref. kodea: LAF-217-189 [3]

Izenburua: Kazetagintza lanetan, *Hernia*

aldizkarirako jasotako bertsoak: H-K

Harnizko

Airea : Partitzeko tenoria ...

– Erretreta baten ondotik...

1 Kantuz hastera noha papera harturik
Zonbeit lagun berriek hala galdaturik
Bainan ez dut batere egin karkularik
Ez duzue izanen deusik arrarorik...

2. Gauza seriosak ditut bakarrik gogoan...
Nola ez hala izan erretret ondoan!...
Egun bakar batentzat izan gatik joan
Handik itzuli nitzen kontentu osoan...

3. Baionarat baziren hogoi neska jinak
Prestuki igaiteko han hiru egunak...
Ez du kalte egiten oi! ichiltasunak
Entzuteko zer daukun galdegiten Jaunak...

4. Jaun Hiriart-Urruty ginuen gidari
Badakit zaiotela gustatu deneri
Erran zaukun ez zela jina predikari
Erretreta egitia zela guhaurreri...

5. Hari izan baiginen hainitz othoitzean
Egonez maiz guhaurre ichiltasunean...
Gero bake gocho bat egin bihotzean...
Makurtuak emanez bide chuchenean...

6. Ni bezen uros ziren itzuli lagunak
Ez baitziren galduak hiragan egunak
Jaun aphezari denek: eskerrik minenak!
Grazia hori dauku eman Jainko onak!

Le 5. 3. 56 – HARRIZKO...

– Guk biek, finitzeko ongi erretreta
Kitorik baginuen teatro pollita
Zoin gocho-ta eztia... bohamien kanta!...
Hek maiteago zuten "Hotta" baino "tota"...

Othoi ez irri egin ene pertsueri
Bihotzetik dautzuet agur bat deneri
Nik ez dut ahantziko lagun multcho hori!
Heientzat eginen dut othoitz Mariari...

Heletarra

GARAZI 1967.

Agur eta Ohore egun zuri garazi
Jeinne berri bat duzu guri Ager-arazi
Ber denboran deï bat Haurrideri adiarazi
Deputatu alkian dugu Parizen jarrarazi.

Jor lekhua dugu Francian Eskual herri ederrean
Mende huntan bi aldiz pagatua Odolean
Buruzagia badugu gidatzen gaïtu Seguerean
Bakea gozarazik auzo guzien artean

Populuari ez daite desira Politiqua
Gezur aïnitz egia guti dabilza nahastekan
Nehork ez dio garbi giza hortako bokata
Bakearekin ez abia Errekarat urkhetan

Eskualdunak elkudioz goazen bethi elgarri
Paraduzu Onean Jainkoak gaïtu ezarri
Ez cherka noun diren Mugak ala Zedarri
Gure artean ez da nehor gose eta egarri

—

Jain Deputatu gaztea agian luzaz chanza hun
Eskualdunen izaitea helaraz zazu urrun
Gertaturen baizauzu zombeit bide ilhun
Gorabi ager zaite bethi Eskualdun Fededun

Heletarra

Herritar bat

Hirea: Begistatua nuen aspaldi...

Ichtorio zahar.

×

Eskualdun guzietan, eztiena zela,
Harazikо yendea, solasa dalila.
Ni beldur ez ote zen, bertzeak bezala!
Ez izan yelos othoi... yelos berehala!

×

Bor-bekuan aspaldi, zaharrek diote,
Bagela yanfutre bat: Herriaren Kalte.
Mihi gachtorik denetz? Drok badakite.
Draikoan ahatik... egia dukete!

×

Ezagutu dutenek, yaltchagorri yauna.
Ez dute nehoiz yakin, zertaz zen egina,
Bai gizon ala debru, heiek zakitena:
Zorigaitzez yaun hori... zela Eskualduna

×

Ichtorioa luze, ta nik hatsa labur,
Indar bat eginen dut, ez zaïtezten samur,
Ez othoï nihok egin, egiari muthur!
Ez baïluke balio... gaïtzitzea segur!

×

Galtchagorri zelarik, oraino gaztea,
Imen zuen asmatu, Norbaït izaïtea,
Aski denborarekin, apheza "yoïtea",
Ber esklabotzat aldiz... denak egitea!

×

Gaïzoskak badirela, bazter guzietan,
Galtchagorrik zakien... erhien puntetan!
Baïnan hatchemaïtea, hoïmbertze bet.betan,
Amets izigarria!... denak ber onetan!

×

Zaharrak eros eta Gazteak ilusi,
Dino Gizon zirenak, ahal bazen suntsi,
Giza tchar hori zuten, gaïchoek ikusi,
Aphezen etsaï baïnan... Herriko nagusi

×

Ez nuen erran nahi, Herritar guziak,
Zirela maïngu, Konkor, arras itsutiak,
Baïnan orhoït zarezte, zer zion Legiak
Hiru botzer nagusi... lau bortz sei zazpiak

×

Den Herri tcharrenian, orok badakite,
Badela sos pochi bat: hartan denek parte
Gauzen partaïtzia, yaun merak ez maïte
Ez du sosak urrinik.... moltsak beraz bete

×

Ebats dezaten bertzek, ez da probetchurik
Ez du yende zuzenak, ohoïntza beharrik
Aski du bizitzeko, bakea bakarrik,
Baïnan ez egin beden.... ez egin trufarik

×

Izan zaïten aberats, badukezu lagun!
Berroï lauetan hogoï ta beharrez ehun.
Dirua kenduz geroz, lagun onak urrun
Chekatzen ahal tutzu!.. ez dirade nihun.

Urtheak yoan dire, yendeak heiekin.
Uhain eztiño batek, yestu gutirekin,
Marrumaz Galtchagorri, lagun gaizoekin,
Aurtiki du leizerat... ber tronuarekin!

Euriaren ondotik, eder iguzkia!
Galtchagorrik utzi du, norbeiti lekia.
Hunek baitu sendatu, bertzek'in sakia
Herritarren artean... ezarriz bakia!

Neure azken oïhua: „Biba ~~[illegible]~~ Janna," zuri
Denen partez bethikotz: "Kuku Galtchagorri"
Huntan akabatzen dut galdetuz deneri:
Nagusi onak hauta... zuen Herrieri!

Herritar bat

Herritara (sic)

Jan-Erdiko Mainua

1er

Agorilaren azken egunetan
Malur bat gertatzen da herrian
Gison gazte bat sartu da urean
Hazparneko Pompierak jin dira abian

2em

Zer den gertatu nik ezin asmatu
Segura ehe nahi izan du mainatu
Gorgia duke Jaunkoiarentzat hartu
ura hotza izanez zalu da ateratu

3em

Pompierak eta gendarmak haren ondotik
behar zutela zalu jalgi hortik
ziotelarik ithoada ingaitik
bainan hura gostuan beha echetik

4em

Pompierak eginak dira behar orduko
afera zeriozagoa behar da hortako
ez ahal da nehor hola trufatuko
desgustatuko dira zekulako

5me

Baduzu gizon horien behara
Zonbat taldez ohierat orduko atera
erezen hari etchea edo othara
hamaretan beztitzen dute atora

6eme

Historio huneu erakaspena
Behar gabe ez eman lana
ohean egoitekoz egina da iluna
eta, ez beza la gau-erditan maina!.

Herritara

P.S. S'il y a quelques choses à payer veuillez m'envoyer la note. S.N.P.

Miriart, Albert

Albert Hiriart

1

Bertsu hauk nahi ditut orai deklaratu
Denbora behar baitut zerbait phasatu
Hamalau hilabethe eginak baditu
alemannak pres gintuztela hartu

2

Mila bederatzi ehun berta hameretzian
gerla deklaratu zen aleman frantzian
galdia ukhan ~~gin...~~ eta juaiteko alman
phartitu ginen denak trichte bihotzian,

3

Gerla egin ginuen hamar hilabethe
lekhu huntara jitea ez ginuen uste
Etsaia azkar zela ginuen aditzen,
orai hementche dugu gubernek forzatzen.

4

Ezdea bada trichte untsa phensatuta
alimalentik ez ota guri behatuta
Laman ari behar kroza ukhalditka
Kolikarik ez dugu zobera janeta.

5

Goizetan jeiki eta ura edateko
phala edo pikotcha lanerat juaiteko
Egwarti jin denian zerdu bazkaltzeko
lipatata urrian kuraia hartzeko

6

Zenpnia jin denian lanaren uzteko
Bospasei kilometra oinez egiteko
Kapable othe gira bidian juaiteko
Tan gelditu behar hatsaren hartzeko

Bertsu hok ukhan ginintuen alemaniatik, bainan
galduak ginauzkan. Egun hotan ustegabean
jali zaizku lichtarat, tiroir zola batetarik.
Ikhus balio dutenez agertzea. P.D. 20-7-65

7

arribatu girenean untsa afaltzeko
ogi bat badukegu sei lagunendako
kollir bat confiturra harekin jateko
hoita lan orenentzat kontent izaiteko.

8

Gosiaren phartetik badugu zofritu
Frantsesen falta dela erran ahal dugu
Kozinerak frantsesak zaraizku gerthatu
presunerak utzirik auzuak zerbitzatu

9.

Etzateko manera nahi dut aiphatu
atherbe ona dela behar dut aithortu
matalazarentdako lastua badugu
lagun onakere ba denek zonbait mamu.

10

Nola utzi gaituzten ~~ya~~ hemen nagusiak
metre bat iten zuen horma-te elhurrak
Zangoak hormaturik batira bakharrak
anhitz familientzat sekulako penak

11

Hora nolakoa den hemengo bizia
denentzat ez da aski gerla phentsatzia
sobera luze baita denen khondatzia
Zonbait ezarri eta hobe ichiltzia.

22 Mos-h-1'

12

Etsenplu bat nahi dut eman frantziari
Eta partikularki jende gaztiari
Umil izan ditezen beren artzainari
Bakia bethi geldo Jainko maiteari

13

Bertsu hau eman gabe ez nitake geldi
zonbat phentsatzen duten Eskual-Herriari
Gu hemen zoin untsa giren hemen da ageri
zonbait oihu iten dut ene aitameri

14

Bertsu hauk emanen tut nik Eskualdunari
Guziek maite dugun gure jurnalian
Denek leitzen baitugu gure familian
politika utzirik Bainan hainitan

15

Orainokoa baditut anhitz bertsu emaiteko
Bainan kuraia guti hemen khantatzeko
bertsuak utziko beszaliti hatetako
Hazparnen elgarrekin fite khantatzeko

16

Bertsu hauk eman ditut nik Alemanian
Belkungen deitzen duten herichka batian
Ene gogua halere bethi Frantzian
Jainkoak eman gitzala bethikotz bakian

Arria Eskualdun bat zen itsu eta bertsulari
allert Hiruert

Hazparnarra

Hirigoien. Martin

Bankar bat

Banca 12 - 6. 44.

Pétain Marechala

1g.

Gai izan gabe hastera noha egungo kanta alchia,
Zerbait gisetan aipatu naliz Pétain Marechala handia
Bere denbora eremaiten du bethi, eginez ongia,
Lagundu gabe ez baitu utzi sekulan behar ordia.
Nor da izarzen ahal duena horren merezimendua?

2g.

Eskoletako denboran hasi eta gero handik gorti
Lanaren bidez pausu guziak iragan ditu ederki
Leheneko gerla denboran gudukatu da azkarki
Pédea, herria ta ohorea lehenak ezarriz bethi
Horier zonbat atchikia den mundu guzietk badaki.

3g.

Zer ez du egin herriarentzat Espainiako alchian
Léon Bérard ta Ibarnegaray, bi jaunekilan batian.
Gora beherak gaizki zoazin bi erresumen artian
Pétainek laster ezarri ditu samur zirenak bakian
Lanorik baizik ez da egiten hori dabilan lekian.

4os

Gure lurretan sartu zelarik alemanaren oldarra
Buruzaguiek galdatzen dute gure soldado zaharra
Frantziak egin deiari ez du nahi itzuli bizkarra
Kargaren pean sarzeko prest da horren sorbalda azkarra
Herriarentzat dauka osoki bere denbora ondarra

5os

Sekulan ez da holakorikan aditu eta ikusi
Soldado eta berze jendeak nahas mahas ihesi
Zer zorra dugun, guhaur bakarrik ez gaituzulakotz utzi
Ezin berzea ikusis duzu gudua geldiarazi
Herriarentzat egin duzuna ez dugu nahi ahantzi

6os

Gure malhurra zoin handia den kusteko nun da aizina
Beha nehotaz ez daike egon iheslarien ezina
Zure lanean hor zira bethi ukana gatik adina
Berzen zauriak lotzen dituzu ahantziz zuhauren mina
Zure bozaren aditzeak berak badu bere atsegina

7os

Berriz gainean huna nun dugun negu beltz eta luzia
Iduri luke gurekin dela malhurren lerro guzia
Zori gaitzaren emendatzaile zonbait jenden malezia
Pairamenetan daudenez gostuz eginez irabazia
Dakitelarik ez litaikela hori gure gutizia.

8os

Zer karga duzun gure gainean lau hogoi eta bortz urthetan
Pausua harze zinukelarik aspaldiko denboretan
Gure herria aldichartua hor da zure besoetan
Eri horrentzat zure bihotza dago amodioz sutan
Hoin maite gaituzulakotz gira osoki fidatzen zutan

9os

Gobernatzeko moldean berdin trebe da Jaun Marechala
Lege bat ona ez delarikan, berritzen du berehala
Badaki untsa gure geroa familietan dagola
Buruzaguier nahi du eman laderia ta ahala
Merezi aran zathikatzen du dener beren abantaila.

10os

Eguerrikari erran daukuzu Ehahar maite baliosa
Ar gaiten denak lanean eta egin elgarri laguntza
Ukaiten tugun mannak bethez, geroan atchik esperantza
Herriarentzat egin dezagun gure indarren emaitza
Hola daikela ezti bakarrik osai dugun zorigaitza.

11os

Egiten duzun ongiarentzat harze duzu esker mila
Zu utzirikan ez gira juanen hobeago baten bilha
Zuzena eta ongi egiba, zuhurra eta biphila
Zure baitan guk ikusten dugu Jaunaren esku makila
Gure herria zure medioz bere lekura dadila,

12()

Erna haundiak eta eskolan dabiltzan haurretaraino
Petainek dio gure herria senda daikela oraino
Esperantzaren ukaiteak ez du nehor galdu egundaino
Indar ~~ig~~ iteak ondo hobea du ingas egiteak baino,
Berma gaitezen denak FRANTZIA chutik eman arteraino

Bancar bat.

I

Hydroko goardiaz.

I

Hila bederatzi ehun eta berrogoi bortzan
Urtariileko bigarren hamorzain akabantzan
kantu berri moldatzeko minditake chedetan
Bancako Hydroan hartu zerbitzuain gainean

II

Helterri eskapatzeko etchen giuen baratu
Hydroa behardugula gainetik goardiatu
Bi hirur dotzena gazte beraz giuen muntatu
Larderia, zuhurzia ziren Herrian sartu.

III

Aldian hiru jandarma, gainean bortz mulliko
Trampette zaharra denek giuen burutako
Harma bat bi kartuchekin dugu guziendako
Bi hirur mila kukuso berriz lagunetako.

IV

Nolaz ez diot emanen aipamen bat harmari
Kroza arraildua zuen, hirur itze juntari.
Gacheta bat zanga motza herdoilaren janari
Jostag~~...~~arri zen han gainidi pasaian zailanari:

V

Egunaz etchen lehertu, gauaz han Gudukatu
Laster ginen gehienak hizi hortaz lotsatu
Sagutta kukusoekin ezin burutziatu
Adichkide horiekin bazauken nun jostatu.

VI

Batichta Ehuliurechaborr ofizierretako
Ohedea ginuen denek ideian bozkatzeko
Bertze kapableikan ez ginuen hautatzeko
Usaia badek nik zian horien partidatzeko

VII

Basloitztarrek nahiago gozik erretiratu
Ginuen harmamenduaz bazuten nun berdurtu
Domingo Bidabehere zaukun laster trufatu:
"Harri ukaldika hobe duzue entseatu".

VIII

Etsaia joan zeneko ihizin abiatu
Munizione ginduen bi kartucha bek hartu
Erbi eder bat zitzaukun lasterchko presentatu
Gacheta zapatu eta tiroa ez partitu.

IX

Zer larderia giniaukan Sasupetarrendako
Goardianoek dugu hoi entorreatzeko
Ez dugu batere zerbait trufaz estronatzeko

Biba berriz Domingo Bidabeherendako

X

Kantuño ~~[illegible]~~ hau moldatu dut orroitzapenetako
Amodio izan dezaun hauz apezarendako
Hari esker ez bai gira Alemaniarako
Berzela zitzaken larru zaharrari gostuko.

Batere astirik balin baduzu, berzela ez dut nahi;
arranjatuko dautazia kantu miserable hau.

Zure adichkide: R. Lafitte St M. Hiriy[illegible]

IDIART, Roger.

Koblakalde bat

Roger Idiart-ek egina

GUTIZ EZ UTZ

~ Aphez kitzikan ~

I

Huna bi lerro pertsutan,
Aphezen kontra kitzikan;
Jauzerretora, ez egon dudan,
Irri egizu segidan.

II

Jaun erretora zutarik,
Hasi behar dut lehenik.
Bota pikoak asiz geroztik,
Bat bertzearen ondotik.

III

Azkarra duzu fedea;
Ez othe duzu chedea,
Guri etsempluz erakustea,
Zeruratekо bidea?

IV

Gure lurretan idorte:
Jainko puniza nik uste;
Zure othoitza behar ginuke,
Zutan baitugu sineste

V

Zeruan dago hedoia,
Lehertu gabe doidoia;
Ea, kantatuz lau "alleluia"
Jautsiko denez uria!

VI

Apheza eta serora,
Alfer mezatik lekora:
Othoi, ez bethi, jaun erretora
Ichur izerdi sobera!

VII

Aphez otruntzan arnoa,
Gazura gisa badoa;
Geroda jiten, kasatuz loa,
Othoitza bero beroa!

VIII

Igandetan zer eskea:
Frangotan moltsa bethea;
Aberatsari nausi pobrea
Hunek du bihotz hobea

IX

Bada munduan olendun,
Ozanik ere chapeldun :
Alferkerian egunez egun,
Hanitz kolako fededun!

Jaun likario gaztea,
Omore onez betkea,
Izanenduzu borondatea
Pertsu kanki iniz kantzea.

Ez dut erraiten gezurrik:
Hunat etkoniz geroztik,
Baskari kortik, afari kandik,
Ez duzu deusen eskasik!

Jainkoaka zaitu lagundu,
Mañeran zare gizendu.
Jateaka ere zerbeit on kadu:
Ez uerria dautzu berdindu!

Ez otke duzu senditu,
Laster zarela koditu?...
Etxa numbeitan, kandut aditu,
Bi kintaletan gelditu?...

Bi metra kurkil kandia,
Larruenetan larria,
Zure arropak kadu tokia,
Zapatezake mendia!

X

Ez kalimbanaiz ichiltzen,
Hasiko zare kechatzen ...
Oferru zola dut arriskatzen,
Huntan ez kanaiz gelditzen!

Mozkorra kanitz arraila,
Zurekin naliz kasaila,
Nundik kantuko nuke abaila
Jotzeko zure matraila?

Meza goizetan emana,
Jornala duzu egina...
Otkoitz erraiten da zure lana,
Oi! Zer jainkozko gizona!

Mezak ez dire kario:
Zerbeit kalere kalio...
Beharrik zare zu likario:
Goizak arnoa dario!...

Zer mintzatzeko manera;
Badut erranik sobera...
Bardin achkide izanen gira,
Koleratzen ez kaxira...

Ondar huntan dut asmatu
Behar nuela gelditu
Ez kalimbanaiz ontsa mintzatu
Dautzut erraiten: barkatu!

Iholdiarra, Charles [Uhalde?]

Soldago - kantu

"Udazkena Algerian"

I

Aski goiz bethe ditut nik hogoi urtheak
Algerirate bainan ereman zortheak
Adios etchekoak lagunak maiteak
Frantziak falta ditu gerlari gazteak

II

Erre bultatu zaizku Telaga marroak
Oro erre suntsituz orori tiroak
Noiz tugu zentzatuko hek buru beroak
Agian laster bainan erranen geroak

III

Jainkoak lagunduak ez gira beldurti
Gachtakinak diztela hil edo sumeti
Hiten lanek ez dute eginen bi zathi
Algeria gurea egonen da bethi

IV

Hainitz eskual dun gira soldado arropan
Bakea egiterat ethorriak tropan
Bainan etsai gaichtuak debruadu tripan
Zarkeria egin ta mendirat espakan

V

Eder zait ikustia churi mendi gaina
Ethur polit garbia zeruko dohaina
Hemen lohi faltsua lanjerosa dena
Bandera gorri batek odolez egina -

(segida bertze planan)

VI

Huda pasatu zaiku horra udazkena
Gaztain erren tiroa nahiago naukena
Ez bide naiz bakharra hemen eskualduna
Sor etche maitari phentsatzen dutana

VII

Desertuko hegua iguzkiz erria
Zoaz iphar alderat handuk sor herria
Dener ontsa girela emozu berria
Zure musu beroaz oro bozkaria

VIII

Zoaz oihan alderat eztiki hegua
Hila iratze pheiten han dut akhitua
Emakozu kuraie argituz gogoa
Ene faltan ez dadin egon elsitua -

IX

Urtzoak heldu dira udazken bethian
Negua pasatzeko nunbeit gut artian
Bakea behar dugu egin Algerian
Gibelerat juaiteko guziak bathian

X

Zakhoste oi urtzolak gure ganat laster
Etcheko berri onak ekar batzu bertzer
Ochkachen ala Saran kasu nun den langer
Gure harmak ez dira zuen daka aiher

XI

Laster itzuli gaiten iduri urtzoak
Pasaturik lanperrak eta itsatsoa
Thiratzen gaitzela sor leku ozoak
Eskualdun bizizeko nola arbasoak -

XII

Eskualdunak bethitik ziren gerlariak
Pazientziaz jasanez pena miseriak
Etcherat ekartzeko beren bitoriak
Izan gaiten gu ere heiek iduriak ?..

U. Sholdiarra

Pour le N° du 5 Mai -

Soldado Kantua (airéa Agur Chiberua)

I

Herritik urrunduak, adina lobendun,
Armadetan gaudé, zaimbeit soldado Eskualdun
Hemezortz hilabetez, nola hariz lagun
Atzo trichté, alegera egun
Killa ez da urrun, zombeit pint'arno han
kantuz huts ditzagun.

Refrain

Zato, zato, killa
Hunarat yinez geroz, zu nahiz nabila
Zato en billa
Eman dezatan ené anofa zibila
Ez gainten (rempila)
Hemengo dembora zer gauza inutila
Kaserna barnián, etsitua nian
Bertzeren nemian, goazin azkenian
Libro guienian, killa egunian.

II

Aintzidari zar batzu, sargant eta bertzé
Besoetan diuztélakotz, bi oihal kurutzé
Badute lardeuia oi zoinbat oinhartzé
Zombat oihu, presondegian sartzé
Orai ez da luzé, killa dugu korché
Aspaldian hartzé.

Refrain -

III

Permisionetaz kampo, lanunbat eguna
Beré (revue) endako, egunik charrena
Preso-dégiratzeko, bidé laburena

III (suite) Hau duk falta, hori duk zikina
Zer atsegina hurbil dugu yina
Killaren eguna

Refrain -

IV Yateko zarra eta denetik eskasa
Ikasi dugu bizitzen, ikasi frantsesa
Orai zuen aldi da, gur'ondoko klasa
Martchat egin, guardia har ontsa
Urthé t'erdi pasa, yinen zauzie aisa
Killaren amentsa.

Refrain

V Nun zaizté Uztaritzé, Banka ta Iholdy
Sempéré, Hasparné eta Makaya hi
Zuetarik ununduak, gaituzté aspaldi
Ibiltzeko, desertutan gaindi
Zombat unha aldi, beró ta izerdi
Killa dugu nahi.

Refrain

VI Bethi gerla ustean, dembora badua
Bainan nundik da lotsa Eskual soldadua
Yinen gaituzu berriz, delarik ordua
Garhaitzerat, etsaien gudua
Kechu da mundua, bainan populua
Ongi da zaindua.

Refrain

signé
Charlech Iholdy-arra

EGUBERRI SAINDU.

Hirea. Bordachuri

I) Egun abendoaren hogai eta laua.
Guardian pasatuko Eguberri gaua
Permisionia aldiz surat badaa
Ai zainbat urosa den Frantses soldadua

II)) Lariatuak gurdon Eguberriri so
Etchen pasatzeko hiru egun osa
Bai bainan zorigaitzez eman gaituzté preso
Orai nahi ala ez egon behar maltso

III) Ortzegun sainduz yaunak hanitz sofritu du
Guretzat hau ez dea eguberri saindu
Igan astean gaizki girelakotz hendu
Badugu nahigabé burrego'ta yudu

IV) Lagun bat yin zitzautan "Errak to Iholdy
Gaur hirirat banoak murru hoitan gaindi
Sekulan (contre appel) bat suerta balodi
Ené lekuan dezak othoi errespondi

V) Nik baietz errepostu adichkidé bati
Zuré ta Frantziaren zerbitzuko bethi
Yaun horien trompatzeko aski diket guti
Eztut lehen aldia trankil zaité ~~bet~~ parti

VI) Numbeit hala behara ginelarik etzan
Horra nun den appela aments baten plazan
Gu bien izeneri nik erran dut (present)
Lan horren egiteko ustez bahar nuntzan

VII) Bainan ohartu dira "Nun tugu yendiak"
Kondatzen hasi eta "Falta tuk erdiak"
Kechu ziren uliak eta yaun haundiak
Agertu duztelarik gure huts gordiak

VIII) Tribunalian ginen argitu zenekotz
Yaun kapitaina yuyé bi begiak zorotz
"Bota bi aste peso eta biloa motz"
Dizipliniaren kontra yarri direlakotz.

IX) Geroztik hemen gira ez ta eskapurik
Gakko baten menian korrek berotürik
Kantu hauk eman ditut koleraz asorik
Afariaren gatik behar zen bertzerik

X) Oi Eguberri saindu 'ta biharamuna
Donapaleun dugun feria eguna
Nik erdi hitzarturik pollit bat naukana
Bertze batekilan to ein beza fortuna.

XI Ene lagun maiteak denei feria on
Zuekin kausitzeko amentsez nindagon
Afera hauendiz hemen behar baitut egon

XII) Gure kaserna tzar hau zaindu beharko dut
Begiak hardit eta bi beharriak chut
Hik "Père Noël" zaharra phodorerik baduk
Kitlo ekar dezadak harma zar huntan truk.

- FIN -

Charlech - Iholdiana.

Ezar ahal bada
1/

IRAKURTZALEA

Azparne agorrilaren 20a

Lafitte Jauna,

Berriki ikusi ditut zenbeit pertsu Baigorry-ko muthiko gozte bateko eginak joan den gerlan preso zelarik Irugnen (Irún) Gozte hori hil zen 1945-ko primaderan. Pentsatu dut Herria kasetak eginen zakotela toki pochi bat pertsu horier:

Mila bederatzi ehun eta berrogoi ta hiruan
Iduriz mundua da bethicotz guduan
I Etsai beltza sarthu da gure sor lekhuan
Eta hargatik giza gu hamporat joan

× × ×

Zenbait persugno beraz gure burnari
Begira hemen gaude hamarrak elgarri
Marchoaren hamarrean utzi dugu Baigorry
II Arinkara pasaturik muga iskin hori

× × ×

Pertsu bat orai guk espainiari
Horrek egin derauku oi ongi ethorri
III Jauaren pasatzeko otelean ezarri
Hauche duk hauk bizia ginion elgarri

IV Plazer hori ez zen ez guretzat egina
Laster harta baitugu irugneko treina
Guardiarz inguraturik arribatu gira
Hek ereman gituzte oi! presondegira

× × ×

V Sarthu baginen sarthu bazen gero yestu
Gainetik behereraino gaituzte ikertu
Hemendik batek mano bertzeak handik oihu
Gauzen aragnatzeko kaskuak pelatu

× × ×

VI Mahurrik ttipiena da hori erraiteko
Ez baginu bertzerik gero hondatzeko
Tripa arinik gande ganari botzeko
Manta char bat daukute eman etzateko

× × ×

VII Igande goizean goizik yoiten du apela
Heldu zan guardia meza ba dugula
Hortan phisten da gure eskualdun odola
Yainko yaunaren hitza dezagun ohora

× × ×

VIII Othoitz ere egin dugu oi kartsutasunekin
Bihotzez garelarik oi etchekoekin
Kaxolarat etzeli zoinu tzar batekin
Yestu horiek zer ziren nahi ginuke jakin

× × × IX

Gure bizi modua azkena dutake
Gachtagin batzuen pare tratatzen gituzte
Nihon deus ebatsi gizonik hil gabe
Libratzeari begira egun oroz gaude

× × × X

Oi etcheko gaichoak zuek penarekin
Gure maite pollitak zuek ere heiekin
Gorphutzez urrun bainan bihotzez zuekin
Noiz izanen girare oro elgarrekin

× × × XI

Kantu hok eman dugu oi presondegian
Oihu bera dugularik orok bihotzean
Yauna lagun gaitzatzu gure suerte trichtean
Sar gaiten elgarrekin Baigorry herrian

- IRAKURTZALEA -

IRATZEDER

G.H. 1967 (6.26)
2 Thor.

ANDREDENA MARIARI

Airia: oi mirakulu guziz espantagarria

I

Nahiz ni ez nizan gai zutaz mintzatzeko
Ama, badut chedea zure aipatzeko
Birsina garbiena zu ohoratzeko
Eta egun goraki zure othoizteko

2

Elizan duzu guziz zuk maite othoitza
Bainan desertu huntan da ene egoitza
Umilki nahi dauzut alchatu bihotza
Othoi adiezazu Ama ene botza

3

Itsasoak koleran, thirainak borthitzik
Suntsitu nahi ditu guziak Untzitik:
Gizonaren indarrek ezin egin deusik...
Jainko eternalaren bothereak baizik

4

Orduan Matiñelek beren lanyerretan
Porturik segurrena dute zure baithan
Jainkoak zu adituz zure othoitzetan
Emaiten-tu thirainak beren zedarri-tan

5

Abokatak badira tribunaletako...
Zu Abokat-saindua zeru-lurrendako;
Merezi dutan gaztigutik libratzeko,
Nik ere hartzen zitut Ama ararteko.

6

Aberats ala pobre gizonen arraza
Jainkoaz yuiyatzera oro bagoatza
Herstura hortan nork daut eginen laguntza
Zu zira zu Maria ene esperantza

7

Egidazu oraitik ene beriora
Jaunaren othoiztetik ez nadien bara
En'azken orenean yin zaizkit aldera
Zure bihotz amultsuz ene laguntzera

Iriarte, Felix

'Banca-koa'

Larun-go menditik

Aïrea: Lili bat ikusi dut baratzé batean.

1.

Hemetzi (~~etu~~) mende-ta erdi du yadanik
Yesu-Kristok lurretik zerurat iganik
Pertsu berriak aurthen kantatzen ditut nik
Eskual-herri maïtean gogoak emanik

2

Aspaldian gogoan banuen désira
Larrun mendi gaïnerat aurthen ijan gira
Charaturikan egon handikan bégira
Eskual-herrian toki ederrak baïtira

3

Ageri da Navarra eta Gipuzkoa
Urbilena Lapurdi pare gabekoa
Gero bachenabarre eta Liberoa
Urrunak gordetzen du gaïneratekoa

4

Itsaso distiranta eder bezein haundi
Handik landa zelaiak ibaï eta mendi
Aïtasoek utziak guretzat aspaldi
Bozkariatu gabé ez ditaïké geldi

5

Barréneko zelaïan zer herri aldeak
Landa gizenak eta bai soro berdeak
Aïnitz koloretako lorekin gordeak
Zoïn uros bizi diren eskualdun yendeak

6

Aïnitz gaztelu eta zer nahi yauregi
Ageri da hemendik eder eta argi

Mendi baten gaïnean horra "Achkolegi"
Udan gochoda baïnan neguko goregi

7

Itsasoan chalupak dabiltza arraïntzan
Aïnitz gizon lurrean ari laborantzan
Mendietan arzaïnak gau egun arzaïtzan
Horra Eskual-herrian zer gisan gabiltzan

8

Persu hok eman ditut lapurdir maïtean
Larrungo gaïnean den Hotel-ño batean
Berriz ethorriko naïz lagunen artean
Yainkoak nahi badu heldu den urtean

9

Grazia eske nago Ama birjinari
Yar zaïte zerutikan ororen gidari
Zabal zazu fedea Eskual-herriari
Emaguzu bakea mundu guziari

Iriarte Banca-koa

IRIGARAI, René

Amentz eder bat

airea: Bordachurri
edo Ama

1°

Soldaduak amentza herriari buruz
Guoguan danka eta ez dezake ikuz
Zuri pentzatu eta trichte egun oroz
Jurea nago beti gogo eta bihotz

2

Duela orai hortaz hamar hilabethe
Armadarat jiteaz galdatu bai naute
Zombait nigar eginik badut orai arthe
Killa urun da eta ez jakin noiz arthe

3

Ait' amak kitatzean nik egin nigarrak
Geroztik tippi dire biziko plazerak
Baditut lagun onak aintzindari tzarrak
Miseria asko badu gu bezala denak

4

Herian utzi ditut, nere lagun onak
Gutiz gehienak orai soldado direnak
Trichteziaz betiak, dire oraiko orenak
Etcheari pentzatuz doatzi egunak

5

Ezkual herria hitaz haundi diat amentza
Guozuena haizela ait'amak utz eta
Herrian utzi diat maïte bat pollita
Yau egun oroz hari nago pentsaketa

6

Naïtia egon zaite nere aingeru ona
Zuretzat baitut bethi amentz hoberena
Bi withe huntan maïte dutan izar ona
Yuri begira dago bethi jainko jauna

7

Hamar hilabethe ditut frantzian pasatu
Gausa hortan jain jainkuak baimu ni lagundu
Geroztik asko gauza baitut inakurtu
Bizia triehte dela orai naiz ohartu

8

Lagunez ere hitz bat nik eran beharrez
Zombait utziak ditut juaitian nigarrez
Elgar keusiren dugu egun eder batez
Killa jinen denian, kantuz bihotz onez

9

Kantu triehte hau huntan dut nik akabatzen
Zeren ametz batetik bainaiz atheratzen
Hari pentzatu eta ditut ichkribatzen
Amentz eder hori dut guzier erraiten

10

Aïta amen alderat noiz naiz ethorriko
Ezkual herri ederra noiz dut ikuziko
Eguna ethori da hemendik juateko
Algerria egin eta Killa izateko

Irigaray Pene

Itzaina, Mixel

'Errola'

Michel Itzaina 'Errolé' (1

(1957)

Moderna izana gatik...

I

Autoa charmanta da erdi beltch ta grisa,
Lau errota-re baditu, modernenen gisa...
Bainan hortan joaiteko ez da behar prisa,
Hortakotz du chauffeurrak ezpastu permisa.

II

Zer gustian, joan ginen, jaun hamdi, jarrita!
Segur ginen karkulen egiten hasi-ta,
Ez zutela utziko, auto han kusi-ta,
Permisarikan gabe holako bisita!

III

Jendek zioten hartaz: "vachement barraqué"
Behatzen ziotela, kusirik berak-e,
Oto tzarra hasten da, geldituriк tente,
Jauzi, ostiko, putar, irrintzina ta ke!

IV

Ah! Zer den urgulua! Ta bizkitartean,
(Hau erraiten dauzuet hemen gutartean),
Leiorat ezin dena jartzen da atean,
Auto hori bichtatik itzali artean!

II

Denk outsa kusi-ta gibel ta aintzina,
Partitu da otoa, nola erregina...
Nagusiak: "haiteke berriz hunat jina,
Izanen dukalarik ~~hol~~ hortako adina!"

VI

Gazteegi bichtan da... eta agradosa!
Ichila ta gochoa, iduri arrosa...
Hirian bakarrikan uzteaz gu lotsa,
Zortzi egunik barne bailaike esposa!

VII

Jin delarik orena permisa pasteko,
Jaun otoak: "ez niz ni, egina kasteko!"
Eta emana gatik bospasei ostiko,
Behar den tenorean ez da partitiko!

VIII

Ah! Otozain maitea, bizitzeko uros,
Holako oto "jaun" bat zinez da agrados!
Bainan kontseilu bat, anai garelakotz,
Permisaren pasteko bertze zerbait eros.

Iztuńztar bat

Ichturitse

Ichturitse herrikotsat bi bersu berri
Ene ateraldias es othoi sobera harri
Bainan bai khasu egin conseilu huni
Es bainis irri egiteko lothua oficio huni

Errespetu guré yaun méra yali nahi duenari
So egin hunek isan duen bos lerroari
khasu egines etcheko yaun sobera handieri
bai eta éré besté chori hichtu-lari batsueri

khasu egin ontsa cofésio huni
nahis éré nisan chinpleki laborari
Ene phensamendua dut emaiten populuari
gausa batsu direla agiaski ahalgé egin garri

Basuek daukuté laster egiten sou prefetari
Bertze pharteak aldis oihu egiten yandarmeri
Phensatus bosetan isaiten ahal diren tratueri
Tresen pagatzeko es ditela lot herriko kesari

hau oto pollit batean dabilan yaunari
herrian nola den ukho egiten urguluari
es haitela sekulan isan alderdikari
guhaur oharturen gaituk hiré balioari

bersu hau egiten dut guré ~~papo gorriari~~ buru harroari
abertitus khasu egiteko bertze boska aldiari
bai eta éré es dadiu sobera lot bersen omenari
es badu bertze bosetan khamporat yuan nahi

gison eta emasté lot gaiten gusiak lanari
afrunturik es egin famas holako herri saindu ari
bakochak guré lekhuan segitus béré egimbideri
ahatsi gabé behar dugula khondu egin yainko ari
Ichturistar bat

J. B.

Mutchurdinak

1

Urustasunaz dire mutchurdinak jabe,
Senharrik, haurrik, lanik, ere izan gabe.
Elizatik lekora, iduri herabe,
Bazterren nahasteko, gero dire hobe.

2.

Usu ikus ditake, leiho chokoetan,
Mutchurdinen burua, agertzen artetan:
Nehundik ez ditazke, egon barneetan,
Ikusi behar dute zer den bazterretan

3

Mihia dute zalu, oi! mokoa biphil,
Heien gostura nihor ez ditake ibil.
Nehoiz heien ahoak ez ditazke ichil:
Heiek jujatu gabe, norbeit othe da hil?

4.

Uko egina dute plazer guzieri,
Ez halere gatuen amodioari.
Gatuek horietan, badute mainari:
Gatuen perekatzen dire bethi ari.

5

Mutchurdin egoitia, segur ez da gaizki
Bainan esposatzia, nik uste hobeki,
Bizi hau nahi bada iragan sainduki,
Atchikia behar da, lanari osoki.

6

Lanian ari ez dena, gaizkiari lotzen
Alfer gehieneri, mihia gaichtotzen,
Mutchurdinak hortako, gaizkian erortzen,
Ez badira fermuki, ongian bermatzen!

J. B.

J.B. ; J.H.

Californiatik bi artzainek

Airea: « Acheri - chirchila

[1]
Egun deliberatzen du bi bertsuren emaiteko
Girelakotz heskoal herritik urunchko
Nola dugun kasia orok duzue konprenituko
Bainan erangoduqu ezdula sorlekua ahantziko

[2]
Californiarentzat utzi izan dugu Frantzia
Egun hartan nun othe ginuen zentzia
Ez baiginakien nola sen hemengo bizitzia
Bakartasuna ezda nehorentzat alegrantzia

[3]
Mila zortzi ehun eta berrita hemezortziko urthian
Gaude bakharik Californiako desertu batian
Gorputzez hemen bainan sorlekua izpiritian
Hortakotz gaude hemen gogo trixhte batian

[4]
Noizten ka gertatzen gira bi lagun elgarekin
Zunbeit gogoeta egiten bi solas egitearekin
Gu norgiren nahi bituzkezue segura jakin
Begorre eta Dingoyen Helettarak gira elgarekin

[5]
Desertu hok dira hautatuak heskoadun gaztendako
Guck ditugu zunbeit hilabete bakhartasunean pasatzeko
Arthalde ba dugu antzinean gau egun kasuiteko
~~Sag~~ Zakur tiki ba baztarean bakharik laguntako

[6]
~~Hermengo~~ Hemengo mendirik gorenetat gira iragaiten
Halere ez dugu echte bihirik ikusten
Mundia hemen fin dela zauku iduritzen
Jinko Jauna dugu bakharik sekhuko ezagutzen



7

Gau ilhunaren ondotik heldu argia
Atsean egiten dugu agura eta goisean egunaren ofritzia
Ama Birjina eskatus Jinkoara galde egin desun grazia
Kurayarekin segi dezagun holo hola guhauk hartu kargia
Aithortugodugu hemengo gure pena handia
8
Ez dugula bethetzen ahal Jinkoaren alderateko eginbidia
Lekhu hotan ez ezagutuz guk noizden ingandea
Du kolpatzen Jinkoaren hirugaren manadendia
9
Jinkoak emantu sei egun gizonarendako
Eta zazpi garenian denek hura adoratzeko
Igande eguna messa sainduaren entzuteko
Guk iten ahal ez duguna horek dauka gure bihotza trichtechko
10
Huntan dugu gure idea deklaratuko
Ez girela gu hemen z segur zahartuko
Sor lekhiak baizik ez gaitu trankil bihotzean ezariko
Jinkoak zaintzia chuchen atchikitzen badauku horat itzultzeko
11
Hok eman ditugu hala diren bezala
Batzu mintzo dira eranez oha-eta hala
Gu gira mintzo dener zabal-zabala
Den arbola tipienak badu bere itzala
12
Bertsu hok khanta ditela omore onian
Bai Californian eta Frantzia barnian
Gisonak egiten badu penitentzia luraren gainian
Bethi ereko soriona ukhanendu zeru geinean

J. B. - J. H.



J. E.

Gure Jnchauspe jaunari.

Beriz ere egin ditutzun lanentzat
Garaztar gujiek zaituzte kantatu;
Ospeka ethari diria zure ganat
Garaztarren bazak zu ez nahiz galdu.

Agur eta ohore Jnchauspe jauna,
Befartamendu kuntako buruzagi
Benen artetik kantatu zituztena
Orai egiten dugulakotz ungi!

Ohore Eskual-Herri guziari
Zeren atsegin baituzu ikustea,
Zu, beriz ere Biltzaneko gidari
Gure adichkide garaztar maitea!

Ohore gure eskual odolaren
Biphamena zahara gora badaukan
Jnchauspe jaunari! Gure arbasoen
Odol bero hura, agkar mendietan!

Gora Garazi Jnchauspe jaunarekin

Gora Eskual-Herriaren omena
Departamendu huntan zurekin,
Gora Garazi, gora Eskualdunak

J.E.

J. L. D.

Airia : Dama gasti charmant bat

I

Milla bederatzi egun eta berragoi to hama gazpian
hiru egun emanik lagunen artian
orai hemen naiz bizi bakartasunean
egun guziez artalde baten aitzinean

II

bakartasuna eta sorlekutik urrun
pena handiagorik ba ote da nihun
nehor ikusi gabe zazpi zortzi egun
hemen izan banintu horgo zonbait lagun

III

aita amen uzteteko bihotza tristerik
nigarra heldu zautan begi bi etarik
hemen baigaia yuiak gu ere yadanik
gure deyá nola den yainkoak emanik

IV

etzautan aigeria hemen iduritzen
ardiekilan baitzaut eguna pasatzen
horiekin batian ari naiz laketzen
bai eta eskual herriaz aitetan orroitzen

V

hori izan ditake ezin ukatua
horgo egun gochuez nago orroitua
eskual herria baitut nere sor lekua

aitén aitek baitzautén lehen kantatua

VI

choriek goizetán eduki kantatzen
alegrantziatán bainauté ezartzen
izai eder bati dut aititan pentsatzen
penak ditu plazerrak ondotik ekartzen

VII

hemeretzi urthe adin edurrán
horiek ditut bethe huiez hunaldián
pertzu hok kopiatu dembora berián
orok kanta ditzatén eskual herrián.

J. L. ID Tracy ko artzaina

Merci beaucoup

J. S.

7

- Pahis zuen lehen ukaldia tiratu
  gaicho mariak ordainak bilhatu
Casterka jinik ausoko Kattalinek es balu beiratu
maino bat beharko zin hartu
hur hotzian hur hotzian freskatu

6

Manechen pena aise da compenitzeko
bere maitiaren funtz hortan galtzeko
Pahis bi andrekin es duen jens onik atheratuko
batto ere gobernatzeko
- es da bethi lan errecha egiteko

fin

7. S.

J. S. L.

Herrian: J. B. S.

Airea Charmegarria zira

Wyomineko arzaina

Sonbait pertsu berririen noha emaitera
Zertas dudan solasa orori erraitera
Yende mota guziak munduan baitira
Bainan Baïgorry hortan soberachkio dira

II

Hunarat yin zauskigu hemiti berriak
Nola yarri zauskigun han nechkato gastiak
Ene ustes es dira Biryina garbiak
Yinkoak daki nola diren ibiliak

III

Kominiatu ondotik mantolin churitan
Ibaz plaza zabiltzan hamasei urtetan
Geroztik yarri dauzkie beraki penzaketan
Edo konseiluak hartu ondoa Michionetan

IIII

Dudarik gabe dute ukan konseilua
Berris hartu omen dute Mantolin churia
Nork ezarri ote du holako legia
Hori laster barkazeko egin bekatia

V

Heldu diren gastenzat hori etsemplua
Es ote dute bada horiek dolutua
Nik ez dezaket erran horien bekatua
Bethi sainatuz dua oraino mundua

VI

Undarreko bestetan siren dantzan ari
Gero etzuli dituzte begiak yinkoari
Barkamendu galdatus Ama Biryinari
Izan nahi bailukete hura bezain garbi

VII

Horien ideya fitesko sanyazen
Gerua nola yinen den ez dute pensazen
Uste dute mundua dutela tromyazen
Hitz hortan ote dute gogua garbitzen

VIII

Gogua garbi eta bihozetik eri
Otoizez ari dira ama Biryinari
Geyo ez omen dira plazetan ageri
Utzo egin dutete betikoz dantzari

VIIII

Bédérazgi garen pertsua mutil gastendako
Andre gein gainian kazu egiteko
hori handia baita Eskual herriko
Baïgorrin ez ahal da berris gertatuko

X

Aski eranik behar dut gelditu
Orori galdeginez otoi Barkamendu
Niauren uztez ez dut nehore mendratu
Nik dazkitan berziak ditut deklaratu

XI

Hemerezi ehun eta berrogoy ta hamabian
Agorilaren bosta zen hauen kantatzean
Argain nindagolarik unun desertian
Neguko hotz bazuez suaren oldian

J. S. L.

Baigorrikua

Jainkoaren dia

Jinkoaren deia bekhatoriari

I

Utzul hadi, utzul, bekhatoria,
Jinko honak deitzen hai eztiki;
Phereteh' ezak haren deitze saintia,
Salbatzeko bidian sar hadi (bis)

II

Beth hire barreiamentietan,
Egin deiat pietatez oihu;
Eneganat deithu hait hanitzetan
Bena bethi hi gor eta mutu. (bis)

III

Zer da, errak, nik egin eztudanik,
Gal ehendin hire begiratzeko?
Hambat argi ukhen duk eneganik,
Zer bidetan hintzan khousteko! (bis)

IV

Gisa hortan zerk othe hai utsutzen?
Gaisto hiza, maite haïdalakoz!
Hain ausarki hik benaik laidostatzen,
Hi gaisto hiz, ni houn nizalakoz! (bis)

Heriotziaz eta jujamentu partikularaz

I

Zien heriotziaz orhit bazinteke
Justoki bizitzera lehia zintezke,
Herioa heltzen da ourtu beno lehen,
Halere bekhatian zirate egoiten.

II

Plazeren, hountarzunen ondoan zabiltze,
Zien gogo guzia hetietan da zie;
Horiek oro utzirik gu [illegible] tian,
Ehortziri [illegible] jutie lurra [illegible] miani.

III

[illegible] rdian ke tuzen da [illegible] latzek orena
Saintiak be[illegible]ek [illegible]la [illegible] lutiana;
Jinko [illegible] batzaliat [illegible] dezak
Berhezziren [illegible] honak.

IV

Eztate zer orduan sok [illegible] galthatu
Saintier, aingurier oihuka erhastu;
Eztu ihourk [illegible]henen urrikalzalerik,
Ez ihourk ekharriren [illegible] consolamenturik

Karnikin, Abbé

Aita Carriquiry

"Lehentze eta azkentze.."

Andere Dona Mariari

kantika berri bat

AMA MAITHAGARRIA

Arra: Ama maithagarria, oi thonarik gabia,
Zeluko Erregigna : Agour Maria !
Goizanko izarra, zoin argia,
Graziaz bethia : Agour Maria !

Bersetak : Ama maithagarria, amodioz bethia,
Phenetan kontsolio ezin hobia :
Zoure bihotz houna, hain eztia,
Zelian lurrian, pare-gabia !

Ama maithagarria, bethi-danik garbia,
Bekhatoren heltura zinez gartsia :
Ariman beitugu bekhatia,
Goure hutser ekhar pharkamentia !

Ama maithagarria, grazien uthurria,
Bakezko Erregigna, photeretsia :
Mundu hountan gerlek phizten suia,
Zuk zelutik, othoi, ezar bakia !

Ama maithagarria, khiristien bermia,
Etsaietik begira goure fedia !
Zoure haurrer eman saintutzia,
Azken orenian zabal zelia !

Ahaidia: "Vierge, dans le jour qui fuit.."
de M.l'abbé Lafourcade
(recueil de M.l'abbé Lesbordes)

(Khaidia: "Vierge dans le jour qui fuit" de M l'abbé Lafourcade)

Ama maithagarria

assez lent



I A- ma mai- tha- ga- rri- a, oi tho- na- rik ga- bi- a!
2 A- ma mai- tha- ga- rri- a, a- mo- di- oz be- thi- a
3 A- ma mai- tha- ga- rri- a, be- thi da- nik gar- bi- a
4 A- ma mai- tha- ga- rri- a, gra- zi- en u- thu- rri- a
5 A- ma mai- tha- ga- rri- a, khi- ris- ti-en ber- mi- a



I Ze- lu- ko E- rre- gi- gna, A- gour Ma- ri- a.
2 Phe- ne- tan kon- tso- li- o e- zin ho- bi- a
3 Be- kha- to- ren hel- tu- ra zi- nez gar- tsi- a
4 Ba- kez- ko E- rre- gi- gna, pho- te- re- tsi- a
5 E- tsai- e- tik be- gi- ra gou- re fe- di- a



I Goi- zan- ko i- za- rra, zoin ar- gi- a!
2Zou- re bi- hotz hou- na, hain ez- ti- a
3 A- ri- man bei- tu- gu be- kha- ti- a
4 Mun- du houn- tan ger- lek phiz- ten sui- a
5 Zou- re hau- rrer e- man sain- tu- tzi- a



I Gra- zi- az be- thi- a, A- gour Ma- ri- a!
2 Ze- li- an lu- rri- an pa- re ga- bi- a
3 Gou- re hu- tser e- khar phar- ka- men- ti- a
4 Zuk ze- lu- tik, O- thoi, e- zar ba- ki- a
5 Az- ken o- re- ni- an za- bal ze- li- a

Aita Carrigniry



'Kristof Colombok atzemaiten du
Amerikatako lurra'
Eskualduna, 1904

[1904. Fetes de la Tradition]

"Eskualdun Ona" (19 IX 1904) VIII

Kristof Colombok atzemaiten du Ameriketako lurra

Airea: Lurraren pean sar nindaite

Esilea: XX

(Igorria 1971-ko urriaren 28 an)
(Nik hartua 1972-ko maiatzaren 1 ean)

1

Kristof Colombo jin zen mundurat,
Hamabortz garren mendean.
Genes deitzen den hiri Ttipian,
Italiako lurrean.
Ait'ama onek girichtinoki
Altchatu zuten haurrean.
Eskoletarik athera baitzen
Hamalau garren urthean;
Untziko muthil Ttipi eman zen
Kapitain baten menean.

2

Haur gazte harek iduri zuen
Itsas-gainean sorthua.
Eta zerutik izpiritužko
Dohainez aberastua.
Geroztik arras eskuan zuen
Lana edo liburua.
Eta ikhasi gazte zelarik
Untzietako gudua.
Nun egin baitzen muthil Ttipitik
Amiral bat famatua.

3

Jakintsunen liburuetan
Irakurtu zuenean
Mundu[han] dela bola handi bat
Biratzen dena airean,
Itsasoa bere onekin
Dabilkana galtzarrean,
Eta leihorrak badituela
Ur horren bertze aldean
Europanoek argiratuak
Hegoan eta ipharrean.

4

Kristof Colombi horren gainean
Ethortzen zaiko gogorat
Europanorik ez zela izan
Mendealeko pharterat;
Hartan[bai] zuen deliberatu
Joaitea alde hartarat,
→ Lurra biribil denaz geroztik,
Joanen naiz Indietarat.

5

Jaun horrek zuen piaia hori
Khartsuki deliberatu.
Bai eta hiru Erresumetan
Zerbait laguntza galdetu.
Italietan zuten burlatu,
Portugalen enganatu;
Erregek bai Erreginak
Espainian fagoratu,
Berak bezala Jainkotiarra
Bazuketen ezagutu.

6

Isabelak zion galdegin:
Zertan daukazu gogoa,
Hango lekuez jabetu nahiz
Othe da zure gudua!
Colombok zuen bi hitzez eman
Zuhurki errepostua:
Jainkorik gabe bizi direnez
Badut urrikalmendua.
Nahi diotet han erakutsi
Ebanjelio Saindua.

7

Isabelak ezaguturik
Jaun haren fede bizia,
Erraiten dio: emain dautzut
Behar dukezun guzia:
Lau hogoi eta hamar mariñel,
Urthe baten hazkurria.
Bi untzi Ttipi: Pint' eta Niña;
Handi bat: Santa Maria.
Eta Alonzo deitzen dugun bat,
Untzi bidari nausia.

8

Egun berean Kristof Colombok
Mintzatu zuen Alonzo.
Erraiten dako: baduka bihotz
Untzi hoien bidatzeko,
Mendealeko itsas beltzetik
Indietarat heltzeko?
Ez baitakigu nun eta nola
Noiz garen lur hetarako.
Ez nikek behar beldurti denik
Piaia huni lotzeko.

9

Jauna, oraino zuk ez dakizu
Zoin arrazetarik naizen.
Eskualdun bati diozunean
Bihozdun denetz galdatzen.
Odol huntako gizonik ez da
Lanjeretan ikharatzen.
Usatua naiz Iphar aldean
Balen arraintzan ibiltzen:
Ni hareko naiz lotsarik gabe
Zuen untzien bidatzen

4 garren kopelan eskas
dira bi lerro

→ Ziolarik, ez banaiz heltzen
Han diren leihorretarat,

10

Hamalau mende lau ehun eta
Hamabi garren urthean,
Agorrilaren lehen eguna
Argitzen hasi zenean,
Hiru untzi hek agertu ziren
Paloseko ibarrean,
Santa Mariak zuen bandera
Bergandinaren gainean,
Jesu-Kristoren itchurarekin
Khurutze ferde batean.

11

Agorrilaren hiru garrena
Hartu zuten partitzeko.
Ikhustiarrez ibar guzia
Estalia zen argiko.
Mariñelak erne zabiltzan
Itsasoari lotzeko.
Colombok zuen egin oihu bat
Belak oro goratzeko.
Eta Jesusen izenean
Haizeari hedatzeko.

12

Iphar ~~[illegible]~~ gochoak zuen agertu
Itsasoa lankopetik.
Eta untziak partiarazi
Zabalerat ibaiatik.
Colombok zuen azken agurra
Igorri untzi gainetik.
Eta ziren laster itzali
Ikhustiarren bichtatik;
Hainitzen ustez behin bethikotz
Espaiñiako lurretik.

13

Zorionezko gau egun batzu
Izan zituzten hastean.
Canariako leihor handia
Bichtatik utzi artean.
Bainan gero sarthu baitziren
Itsaso arrotz beltzean,
Tirain borthitzak, haize makhurra,
Eta bethi lankopean.
Itsasoan izan daiteken
Lanjerik handienean.

14

Bi hilabethe lotsagarriak
Hala iragan zituzten.
Nun mariñelak hasi baitziren
Nagusiari erraiten:
Ez bazakien lurrak nun ziren
Zertako abiatu zen.
Mehatchatua, laidostatua,
Erho batentzat zaukaten.
Untzi hartarik aurthikitzea
Aiphatzen ere zakoten.

15

Goiz eder batez hurbildu ziren
Untziak elgarretarat.
Eta Alonzok ikhusi zuen
Chori andana handi bat.
Colombok dio: chori gaichoak
Dohazi pausa-lekhurat.
Segi detzagun beraz untziak
Guk ere alde hartarat.
Orai segur naiz hurbil garela
Nunbeiteko lurretarat.

16

Arrats berean mariñeleri
Colombok erran zakoten:
Iduritu zait urrun argi bat
Ikhus orduko itzaltzen.
Izan zaitezte bergandinarat
Heia handik ageri den.
Harat orduko oihuz dagozi:
Ikhusten dugu, ikhusten!
Oi lurra, lurra! hurbil dugula
Orai dugu ezagutzen!

17

Leihor hartarat heldu baitziren
Urriaren hamekako,
Colombo zagon argi hastean
Othoitzean belhauniko.
Ethortzen zaizko muthil guziak
Barkhamendu galdatzeko.
Eman ziaten: Bai bihotz onez
Derautzuet barkhatuko.
Eman zaitezte bozkariotan
Orai lurrerat jausteko.

18

Soinekorik ederrenekin
Bere ezpata gerrian,
Colombo zen jautsi lehenik
Eta sarthu leihorrian.
Bertze guziak haren ondotik
Zohazin mundu berrian.
Gelditu ziren mendichka batek
Duen toki gorenean
Eta landatu, berek eginik,
Khurutzetto bat lurrean.

19

Khurutze haren inguruetan
Belhauniko ziren jarri,
Toki hetako lehen othoitza
Zuten zerurat igorri.
Eta Khartsuki eskerrak eman
Trinitate Sainduari
Ohore eta laudorioak
Mariñelen izarrari,
Hainbertze lanjer lazgarrietan
Lagundu zituenari.

Kurlinka

"Bidairatarra" bezela abestutzeko.

Euskeraren alde

Orai neskatillak "mushú le vous"
Euskera jakin gabe erdera nai du
Bat ikasi ez-ta besteari iraindu
Orla portatziak bere lanak baditu
Orren kontra gaude,mutillak elkartu
Nai badu ezkondu
Bearri motz senarra atzemanen du

Euskera bastertu a-lajañetan
Erdera dabilte orax ezpañetan
Trakets itz ugari euren mingañetan
"Bonjour,bone nuit",goiz ta arratsetan
Zertarako dogu gure etxietan
Ez gabiltz txantxetan
Orlako ollandak utzi basterretan

Parragarri dira neskatiltxuak
Erderakin dirade oso itxutuak
Ez dut komprenitzen ola beti gaxuak
Senar gaia nai ta bidez dabiltz galduak
Orla ibiltzeak,baditu kalteak
Ez gaude gu luak
Oraingo gizon gayak ez gera astuak.

"Adiyo mignone,au revoir mon cher"
Orlako neskatxakin ez dago ezer
Ezpain musu gorri izketan beti oker
Orla dabiltzate,nunai ta bi bider
Orren meriyo,beti gera anker
Naiz ta izan eder
Orlakoak merezi ditu bi puzker.

Arro-arroturik beren burua
Oinpean dutela usterik mundua
Euskal baserrian, euskera bastertua
Nola diteke ori, lotsagabe zorua
Zure arbasoa, bailitza piztua
Gogortuz eskua
Ukabilkada batez ziñan galdua

Ez da gero broma entzun maitea
Pentsa zazu egiten duzun kaltea
Erdera ikasi antzi gabe gurea
Lagunen artean mintza gure elea
Senargai bapoa oder ta gaztea
! Itxartu zaitea !
Ori dezu atzemateko bidea.

Kurlinka

FSC
TT-COC-2573